


Día Internacional Contra las Violencias Machistas

Dia Internacional Contra la Violència Masclista

Día internacional contra as Violencias Machistas



Ez da emakume bat hil 

25N *Nahikoa indarkeria!*
Zuretzat, Guretzat,
DENAK



Indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko eguna



Lanaren Konfederakunde Nagusia

@CGT

www.cgt-lkn.org

rojoynegro.info



Día Internacional Escontra les Violencias Machistes

Erahildako emakume bakar bat gehiago ez!

Indarkerietaz aski da! Zugatik, gugatik, guztiongatik!

LKNtik, beste urte batez, generoagatik burututako edozein erasoren aurka gure ahotsa altxatzen dugu. **2013. urtetik gure herrian milatik gora emakume erahilak izan dira** eta munduan zehar miloika izan dira, baina oraindik ez dute hau bere izenaz deitzen: **TERRORISMO MATXISTA**.

Emakumeak bizitzako esparru guztietan zapaltzeko objektu gisa ikusten gaituen **Estatu matxista eta patriarkal** batek erahilketak onartzen ditu. Hiltzaileak kalean uzten dituen sistema patriarkal bat; emakumeak bortxatu eta erahil ostean kalean eta haien ogibidean lanean diharduten hiltzaileak.

Tratu txarrak jasaten ari diren emakumeak, **justiziaren aldetik erakundeen tratu txarra jasaten ari direnak** eta hainbeste presio, mehatxu eta jazarpen jasan ezinda haien buruaz beste egitea beste irtenbiderik ikusten ez dutenak. Guzti hau inpunitate osoz gertatzea onartzen duten Estatuak eta sistemak - jazartzaileak bezain errudunak direnak- heriotza hauek ez dituzte erahilketa moduan kontabilizatzen.

Feminizidioen biktimak ere diren edo haien ondorioz babesgabetasun egoeran gelditzen diren adingabeak, **hoiek ere ez dira genero indarkeriaren biktima moduan zenbatzen**.

Egunero, eguneroko zerbait moduan, bortxatzaile eta erasotzaile manadak agertzea aurkezten digute baina beti ere biktimari buruz hitz egiten (ez zuen bere burua defendatu, janzkera desegokia zeraman, berandu zen...). **Ez dugu gure burua defendatu behar izan nahi, ez dugu beldurrik izan nahi, aske eta lasai bizi nahi dugu**.

LKNtik hiltzen ari gaituen izurrite honen aurka indarrak batzea proposatzen dugu. Gizarte mobilizaziorako, antolaketarako eta eguneroko borrokarako deialdia egiten dugu, **emakumeak haren eskura dauden objektu sexual bat baino ezer gutxi gehiago bezela hartzen dituen sistema neoliberal, kapitalista, patriarkal eta matxista** honi irmotasunez aurre egiteko.

Edozein erasoren aurrean: ekintza zuzena eta autodefentsa, beldurrik eta erru sentimendu izpirik gabe.

Bizirik eta borrokalari izan nahi dugulako

Botere gehiegikeri guztien aurka

Genero indarkeria guztien aurka

GORA EMAKUMEON BORROKA!

GORA BORROKA ANARKOFEMINISTA!

**Lanaren
Konfederakunde
Nagusia**

www.cgt-lkn.org

rojonegro.info

@CGT

